


Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Nekazaritza

# Basoa eta natur ingurunea kudeatzeko goi mailako teknikaria



Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

# Basoa eta natur ingurunea kudeatzeko goi mailako teknikaria Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

## Basoberritzeak eta baso-tratamenduak kudeatzea

- Nekazaritzako, lorezaintzako eta mendiko lanetan eragiketa topografikoak egitea.
- Basoberritzeko eragiketak eta basoen hidrologia zuzentzekoak kudeatzea.
- Baso-tratamenduak kudeatzea.
- Baso-ustiatetikoko makineria, ekipamendua eta instalazioak kudeatzea.

## Baso-aprobetxamenduak kudeatzea

- Natur habitataren inentarioa eta jarraipena egiteko eragiketak antolatu eta gainbegiratzea.
- Basoko zur-aprobetxamenduak kudeatzea.
- Basoko zurik gabeko aprobetxamenduak kudeatzea.
- Baso-ustiatetikoko makineria, ekipamendua eta instalazioak kudeatzea.

## Ehiza- eta arrain-aprobetxamenduak kudeatzea

- Natur habitataren inentarioa eta jarraipena egiteko eragiketak antolatu eta gainbegiratzea.
- Habitat urtar kontinentalaren plangintza eta jarraipena egitearen ondorio diren lanak kudeatzea.
- Ehiza-espezieen habitataren plangintza egitearen ondorio diren lanak kudeatzea.
- Baso-ustiatetikoko makineria, ekipamendua eta instalazioak kudeatzea.

## Mintegiko hazien eta landareen produkzioa kudeatzea

- Landareak mintegian ugaltzeko eragiketak kudeatzea.

## Lorezaintza eta paisaia lehengoratzeko. Honako gaitasun unitatea biltzen du

- Lorezaintzako makineria, ekipamendua eta instalazioak kudeatzea.

## Nekazaritza-produkzioa kudeatzea

- Nekazaritza-ustiatetikoko makineria, ekipamendua eta instalazioak kudeatzea.

## Natur ingurunea kontrolatu eta babestea

- Naturguneak eta haien erabilera publikoa kontrolatu eta zaintzea.
- Ehiza- eta arrain-baliabideen aprobetxamendua kontrolatzea.
- Natur baliabideak lehengoratzeko, mantentzeko, antolatzeko eta defendatzeko eragiketak zaintzea eta haietan laguntzea.

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau lortzen duten pertsonak beren jarduera, besteren kontura zein norberaren kontura, edozein tamainatako (handia, ertaina nahiz txikia) eta esparru hauetako enpresa publiko edo pribatuaren kudeaketa arloan egiten dute lan: baso-kudeaketa, ehiza- eta arrain-kudeaketa, baso-mintegien kudeaketa, ingurumen hezkuntzako planen garapena, gizarte eta natur ingurunean informatzeko, komunikatzeko, prestatzeko eta interpretatzeko lanak eta lagun egiteko eta gidatzeko jarduerak, eta natur ingurunearen eta



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

haren baliabideen kontrola eta zaintza. Baso-suteak itzaltzeko zerbitzuetan ere egiten du lan, administrazio publikoen mendeko langile gisa. Halaber, trebakuntza jaso du tratamendu pestizidak indarreko araudiak arautzen duen jardueraren arabera antolatzeko, kontrolatzeko eta egiteko.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Basoberritze-enpresetako arduraduna.
- Basoen hidrologia zuzentzeko lanak eta baso-inbentariokoak egiten dituzten enpresetako arduraduna.
- Baso-tratamenduak egiten dituzten enpresetako arduraduna.
- Baso-suteen prebentziorako eta itzalketarako unitateen koordinatzailea.
- Baso-suteen prebentziorako eta itzalketarako unitateko burua.
- Baso-suteen zaintzaileen koordinatzailea.
- Basoko izurrien eta gaixotasunen aurka borrokatzeko lanak egiten dituzten enpresetako arduraduna.
- Oihanbideak eraikitzeko eta mantentzeko lanak egiten dituzten enpresetako arduraduna.
- Basoberritze-lanetako, baso-tratamenduetako eta basoko izurrien eta gaixotasunen aurkako tratamenduetako bere konturako langile kualifikatua.
- Topografia-lanetako praktikoa.
- Baso-arduraduna edo langileburua.
- Baso-ahortamenduetako enpresetako arduraduna.
- Mintegietako arduraduna, oro har.
- Landareak mintegian ugaltzeko lanen arduraduna.
- Haziak eta fruituak altueran biltzeko lanen arduraduna.
- Habitat urtar kontinentalaren eta ehiza-espezieen habitataren jarraipena asmatzeko, planifikatzeko eta egiteko laguntza teknikoko jardueren arduraduna.
- Ehiza-espezieak, arrainak eta karramarroak

birpopulatzeko lanen arduraduna.

- Habitat urtar kontinental eta ehiza-espezieena egokitzeko lanen arduraduna.
- Natur parkeko, administrazioaren ehiza-erreserbako eta administrazioaren zein unibertsitateen / ikerkuntza-zentroen esparru publikoko arduraduna.
- Harrapariak edo espezie inbaditzaileak legez kontrolatzeko jardueretan espezializatutako langilea.
- Ehiza-kudeatzailea.
- Landa zaintzeko lanen koordinatzailea.
- Ehiza- eta arrain-turismoko enpresetako arduraduna .
- Baso-agentea edo antzekoa.
- Naturguneen zaintzailea.
- Ingurumen-hezitzailea.
- Naturako monitorea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

---

- Botanika agronomikoa.
- Fitopatologia.
- Nekazaritzako topografia.
- Nekazaritzako eta basozaintzako makineria eta instalazioak.
- Baso-mintegiaren kudeaketa eta antolamendua.
- Ehizaren kudeaketa.
- Arrantza kontinentalaren kudeaketa.
- Ingelesa I.
- Mendien kudeaketa I / II.
- Ingurumen-hezkuntzako teknikak.
- Baso-inguruneko ahortamenduen kudeaketa.
- Natur ingurunearen kontserbazioaren kudeaketa.
- Baso-suteen kontrako defentsa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Basoa kudeatzeko eta ingurunea kontserbatzeko proiektua.
- Lantokiko prestakuntza.